

gaurko filmak

A mí las mujeres, ni fu ni fa ★
Zuz.: Mariano Ozores. 85m. Esp. 1971. 11:00 La2

Novia salvaje ★★
Zuz.: Roy Rowland. 91m. 1955. 18:15 ETB2

O'Brother ★★★
Zuz.: Joel Coen. 105m. AEB. 2000. 21:00 C+(f)

En el apartamento de Lennon ★★
Zuz.: Michael Lindsay-Hogg. 2000. 22:00 C+(e)

La banquière ★★
Zuz.: Francis Girola. 125m. Fran. 1980. 00:20 Arte

Ladrones de identidad ★
Zuz.: S. Long Mitchell. C.W. Van Sickl. 01:13 C+(e)

Marie... es jugar con fuego ★★
Zuz.: Roger Donaldson. 106m. AEB. 1985. 02:30 La2

Escape sin salida ★
Zuz.: Scott Levy. 83m. AEB. 1996. 04:45 A3

● ★ ★★★ ★★★
Txarra Eskasa Balekoa Ona Bikaina



Marie... es jugar con fuego filmeko irudi bat.

A MI LAS MUJERES NI FU NI FA

★ La 2 - 11:00

Zuz.: Mariano Ozores. Akt.: Peret, Jose Luis Lopez Vazquez. 85 min. Espania. 1971.

Kataluniako runbaren ordezkari garrantzitsua izandako Peret abeslariak kameraren aurrean egin-dako lan guztiak kaskarrak dira, eta, haien artean, goizean emango duten komedia zaharkitu hau nahikoa eskasa da. Lopez Vazquez eta Oiores eroek ere parte hartzen dute.

NOVIA SALVAJE

★★ ETB2 - 18:15

Zuz.: Roy Rowland. Akt.: Victor Maclaglen, Robert Taylor. 91 min. 1955.

Euskal Telebistak arratsaldero Mendebalde Urruna bisitatzera gonbidatzen gaitu, eta gaur Robert Taylor eta Eleanor Parker ahaztezinek han barrena izango dituzten gorabeherak erakutsiko dizkigu. Rowland zuzendariak umorezko tonua aukeratu zuen bere genero kutunari ekoizpen atsegina eta polit bat gehitzeko. Emaitza abenturatxo jator hau da.

Spacek samurraren miresleontzat egina

MARIE... ES JUGAR CON FUEGO ★★

La 2 - 02:30

Zuz.: Roger Donaldson. Akt.: Sissy Spacek, Jeff Daniels. 106 min. AEB. 1985.

Roger Donaldsonek 80ko hamarkadan filmatu zuen drama hau ez da oso nabarmena, baina gustura ikusten da, besteak beste rol nagusia betetzen duen antzezle miresgarriaren lanari esker; hain zuzen, Sissy Spacek samurra dugu protagonista. Gidoiak Peter Maasen eleberri bat du oinarriztat, eta benetako gertakari batetik hartutako istorio dramatiko baten kontakizuna da. Spacek goxoak emakume borrokalarri ausartarena egiten du. Hain zuzen, Tennesseeko agintarien jokabide susmaggarrria salatuko du, inguruko laguntzarik gabe. Jeff Daniels eta Morgan Freeman ezagunek rol garrantzuak jokatzen dituzte emakume protagonistaren alboan.

EN EL APARTAMENTO DE LENNON

★★ C+(e) - 22:00

Zuz.: Michael Lindsay-Hogg. Akt.: Aidan Quinn, Jared Harris. 100 min. AEB. 2000.

1970. urtean The Beatles talde mitikoaren gorabeherak bildu zituen *Let It Be* filmean Michael Lindsay-Hogg britainiarak, eta gaur emango duten lana ere inoizko musikari ospetsuenen inguruan filmatu zuen. Hain zuzen, The Be-

ates banandu eta handik urte batuetara Paul McCartney New Yorkera egindako bidaia bat harzten du abiapuntutzat: garaia hartan Lennon zenaren etxebizitzan bi musikario egingo duten topaketa beretza gogoratuko digu.

O'BROTHER

★★★ C+(f) - 22:00

Zuz.: Joel Coen. Akt.: George Clooney, John Turturro. 105 min. AEB. 2000.

irratia



OIARTZUN IRRATIA. Alaitz eta Maiderrek diskobet aurkeztu berri du, eta gaur euren herriko irratiak elkarriketatuko dituzte, goizeko 11:10ean. Gainera, beste irratiak egingo ez dizkienetan galdezi erantzun beharko diete. *Argyuan* magazinean, bestalde, Oier Guillanek liburu bat aholkatuko du, 11:45 alderan.

HERRI IRRATIA. Mahai-inguru berezia izango da gaur gaueko 23:00etan *Komatxo arteen* literatur saioan. Gaia *Literatur kritika* izango da, eta gonbidatuak Felipe Juaristi, Jon Kortazar eta Maria Jose Olaziregi.

EUSKADI IRRATIA. Labayru ikastegiko zuzendari Ander Manterola elkarriketatu du 09:00etan. Edurne Pasabanekin 11:00 aldera hitz egingo du. Eta *Lauretan Babel-en* Beningo egoeraz mintzatuko dira Izaskun Ur-danpilletarekin, 17:00etan.

RADIO EUSKADI. Arrantzaren inguruko eztabaidea izango da gaur goizean *Boulevard* irratsaioan. Literaturaren atalean, bestalde, Enrique Lynch filosofoa elkarriketatu du 17:00etan, *Lajungla sonora* saioan, Roxy Music taldedearren *Avalon* diskoko abestiak gogoratuko dituzte.

Ane Muñoz

Azkenengoz *The man who wasn't there* zoragarriaren harritu gaituzten Coen anaia independenteek omenaldi polit eta azkarra egin zioten duela bi urte kartzelako ihesaldien inguruko abentura sail zabalarri. Beste aktore handi batzuen artean, nabarmentzekoak dira Clooney erakargarria, Turturro oharkabe jatorra eta, tartean, Coendarren betiko lagun John Goodman lodia; ederki lan egiten dute hasieratik amaierara eszena diberti-garriz josita dagoen bitxi-kerria gozagarri honetan. Hiru preso baldarrek kartzelatik ihes egingo dute, nonbait ezkutatuta dagoen altxorra bilatzeko asmoz. Laster erakutsiko digute zein galdua dabil-tzan.

ESCAPE SIN SALIDA

★ A3 - 04:45

Zuz.: Scott Levy. Akt.: Greg Evigan, Alexandra Paul. 88 min. AEB. 1996.

Scott Levyk etxe sorgin-duen inguruko film sail zabalarri gehitutako intrigazko drama honek ez du ezer berririk erakusten. Ezerosoa da, azpigeneroko film guztiak bezala, baina intrigazko uneak ohiko moduan filmatu izanak ikuslea zertxobait aspertzea eragiten du. Bikote baten harremana kolokan dago, baina, banandu ordez, etxetik urrun bestelako bizimodu bat hastea erabakiko dute. Irlandan kokatuko dira, etxe handi misteriotsu batean. Aktoreak ez dira ezagunak, eta ez dute askorik laguntzen istorio beldugarri hau sinesgarria egiten.

ETB-1

07:10: Betimu.
07:30: Betizu.
Twipsy.
Ping.
Sakura, kartak zakura.
Gadget inspektorea.
08:55: Firin faran.
09:55: Ekinez egina.
10:25: Ederra eta piztia.
11:15: Benta berri.
Telesaila.
11:40: Penelope enea.
12:10: Teknopolis.
12:40: Bidaide.
Afrika, garai eta basatia.
13:35: Betizu.
14:00: Gaur egun.
Albistegia.
14:45: Bertatik bertara.
15:15: Txirrindularitza.
Italiako Giroa 2002.
17:00: Bidaide.
Afrika, garai eta basatia..
17:55: E-klipse.
18:20: Betizu.
Elvis Jones txiki eta kamioizaleak.
Muka-muka.
19:15: Betimu.
Shin Chan.
20:20: Iparaldearen orena.
20:28: Gaur egun.
Albistegia.
21:05: Bertatik bertara.
21:45: Goenkale.
Telesaila.
22:25: Sorginen laratza.
23:50: Esanak esan.
00:25: Dinamita.
00:50: Bakarrik edo...
03:20: Sustraia.
03:45: Bertatik bertara.
04:20: Esanak esan.
04:50: Elkartasunaren bideak.
05:20: Euskal Herritik.
05:45: Gagnorarik gagbe.
06:10: Bi eta bat.
06:40: Ikusgela.

TVE1

06:00: Canal 24 horas.
07:30: Telediario matinal.
Los desayunos de TVE.
Luis Marínasek zuzendu eta aurkeztutako saioa.
10:15: Nano.
Telesaila.
11:30: Saber vivir.
Manuel Torreglesiasek zuzendu eta aurkeztutako saioa.
12:45: Así son las cosas.
Manuel Gimenezek aurkeztutako saioa.
14:00: Informativo territorial.
Albistegia.
14:30: Corazon de primavera.
Anne Igartiburu aurkeztutako magazina.
15:00: Telediario 1.
Albistegia.
16:00: Eguraldia.
16:05: La verdad de Laura.
Telesaila.
17:00: El manantial.
Telesaila.
17:45: La fuerza del deseo.
Telesaila.
19:00: El rival mas debil.
Lehiaketa.
20:00: Gente.
Pepa Buenok aurkeztutako magazin saioa.
21:00: Telediario-2. Albistegia.
21:55: Eguraldia.
22:00: Telefilma.
El pajaro espino. Los años perdidos.
Zuz.: Kevin James Dobson. Akt.: Richard Chamberlain, Amanda Donohoe.
01:45: Telediario - 3. Albistegia.
02:00: Vacaciones en el mar.
03:00: Canal 24 horas.

ETB-2

06:50: Del pais de los vascos.
07:25: Palabra de ley.
07:55: Bonanza.
Telesaila.
09:30: El punto.
Gonbadatua: Mertxe Agundez.
10:00: Forum.
Gonbadatua: Rosa Valverde.
10:35: Clasicos en serie.
La casa de la pradera.
12:20: El amor no es como lo pintan.
Telesaila.
13:15: La cocina de Pedro Subijana.
13:30: Euskadi directo. (EAEn)
13:30: Navarra directo. (Nafarroa).
14:00: Date el bote.
14:58: Teleberri.
Albistegia.
15:45: Lo que faltaba.
Magazina.
18:15: Zinema.
Novia salvaje
Zuz.: Roy Rowland. Akt.: Victor Maclaglen. 1955.
20:00: Esta es mi gente.
20:58: Teleberri.
Albistegia.
21:45: Doctoras de Filadelfia.
22:50: Senderos misteriosos.
00:45: Desafio total 2070.
02:25: Esta es mi gente.
03:20: Lo que faltaba.
05:15: Forum.
05:45: La botica de la abuela.
06:35: El otro Mexiko.

A3

07:00: Princesa Sissi.
Telesaila.
07:30: Club megatrix.
Chicho terremoto.
Tres amigos y Jerry.
Supercampeones.
Historia futbol.
09:00: Boletin informativo.
09:30: El primer cafe.
10:30: De buena mañana.
13:25: Informativos territoriales.
Albistegia.
14:00: Desesperado Club Social.
Estudio de actores.
Los Simpson.
15:00: Noticias.
Albistegia.
16:00: Ecomoda.
Telesaila.
17:00: Sabor a ti.
Magazina.
19:00: El diario de Patricia.
Magazina.
20:00: Pasapalabra.
Lehiaketa.
21:00: Noticias 2.
Albistegia.
22:00: El mundial 2002 se juega en casa.
22:30: Al descuberto.
01:30: Noticias 3.
Albistegia.
02:00: Televenta.
04:45: Zinema.
Escape sin salida
Zuz.: Scott Levy. Akt.: Greg Evigan, Alexandra Paul. 1996.
06:15: Se ha escrito un crimen.
Telesaila.